

## **Gipuzkoako Foru Aldundiaren urrezko domina emateko ekitaldia**

### **ANGEL OLARAN**

Egunon guztioi eta mila esker ekitaldi honetara etortzeagatik. Gipuzkoako Foru Aldundiak urtean zehar egiten duen ekitaldirik garrantzitsuena da urrezko domina ematea. Ohore handi bat da niretzat Gipuzkoar guztion izenean aurtengo urrezko domina Angel Olarani ematea.

Angel Olaran, edo Etiopiako bere ingurunean deitzen dioten bezala Abba Malaku (edo «Jainkoaren aingerua»), gipuzkoar misiolari talde oparo baten kide da, joan den mendearen erdialdean hasi eta gaur arte, Hirugarren Munduan gutxiena dutenen alde lanean buru-bihotzez aritu izan direnen artekoa da.

Angel Olaranek ederki jakin du Aita Zurién kongregazioaren sortzaile Lavignerie kardinal baionarraren lekukoa jasotzen, eta haren lanari jarraitasun bat ematen, era arduratsu eta sortzaile batez, gaur egungo sentiberatasunera eta aukeretara egokituta, proiektu sendo bat antolatzeko, hurbileko laguntzaile askorekin batera, eta lankide anonimo ugariaren laguntzaz, Gipuzkoan eta beste hainbat lekutan.

Zenbaitentzat, «afroezkortasuna» ongi baino hobeto arrazoitua dago, baina ez berarentzat. Wukrora iritsi zenez geroztik, erantzun zehatzak ematen saiatu izan da kaleetan barrena dabiltzan umezurtzei, seme-alabak dituzten emakume baliabiderik gabeei, goseak jotako familiei, tuberkulosia edo HIES duten gaixoei, lanbide trebakuntzaren beharrean diren gazteei, bizitzari aurre egiteko indarra galdua duten zahar babesgabeei, edo gerrak mugiarazitakoei.

Angel Olaranen lekukotasuna ez da bakarrik gauza miresgarri eta eder bat; haren ekintzak eta hitzak erakusten digute nola begiratu

behar dugun Hirugarren Munduak erakusten dizkigun ingurune horietara, hainbeste jende, familia eta herriren sufrimendua jaso eta haien berri izan dezagun, haien zoria gureganatu dezagun, eta itxaropena sortzeko zeinu edo hautabide batzuk argitu ditzagun; eta, guztiarekin ere, bada beste zerbait garrantzitsuagorik: auzitan jartzen gaitu, auzitan jartzen du gizarte aurreratuon garapen eredu indibiduala nahiz kolektiboa.

## **1.- XXI. mendearen drama**

Lehenik, errealitateaz jabetu behar dugu; ez da aski esperientzia hunkigarri edo txundigarri bat bizitzea noizbehinka, era bakandu batean; kontzientzia eraldatzaile bat hartu behar dugu gure etxean, gure herrixka global honetan, gertatzen ari denaz, gu ez baikara antzezle soil, baizik arazo larri horren parte.

Nola ez gara hunkituko, asalduko, sentiberatasunaz eta grinaz, gure munduan diren ankerkeria eta bidegabekeria etengabeen aurrean: desberdintasun ekonomiko izugarrien aurrean, pobretasunaren aurrean, gosearen aurrean, eta indarkeriaren aurrean?

Nola uler genezake gizarte aurreratu batean, ongizate handi batean bizi den kontsumoko gizarte indibidualista batean, zer ote den benetan gosez hiltzea? Galdera horri erantzuten ez dakit. Baina saiatu nahi nuke erantzunen bat ematen.

Errealitateaz jabetzeak esan nahi du ikusi beharra daukagula munduko aberastasunaren % 80 bereganatzen dutela populazioaren % 20k, eta gu talde hautatu horretan gaudela. Batez ere, esan nahi du jakin beharra dagoela hiru mila milioi pertsona —gizaki guztien erdia ia— pobretasunaren mailaren azpitik bizi direla, eta 1,3 mila miloi miseriaren lerro gorriaren azpitik bizi direla. Labur esanda, hiru gizakietatik bi eskasian, biziraupenean eta, askotan, goseak bizi dira.

Benetan ikaragarria da XXI. mendean gizateriak ez duela lortu, oraindik, bere bi orban mingarrienak ezabatzea: gerra eta gosea. Ez da harritzekoa, beraz, Nazio Batuen **FAO** Janari eta Nekazaritzarako Antolakuntzaren zuzendari nagusi Jacques Dionf-ek esatea: «goseak jarraitzen du izaten munduko tragediarik eta eskandalurik handiena». Amaigabeko holokausto bat da: «*gosearen holokaustoa*». Ezin dugu beste alde batera begiratu.

Aipatu dugun nazioarteko antolakuntza horrek berriko emandako datuen arabera, gaur egun munduan 920 milioi lagun daude gosete kronikoaren mende, eta urtero gosez hiltzen dira —hitzez hitz ulertuta— 15 milioi lagun; haurren artean, 6 segundo bakoitzeko hiltzen da haur bat desnutrizioari lotutako arazoengatik. Onartu ezineko zifra izugarriak dira.

Bestalde, azterketa guztiek agerian uzten dute «gosearen geografia» ez dela berdin banatzen, eta goseak bizi diren guztien hirutatik bi zazpi herrialdetan daudela, hau da, Bangladeshen, Txinan (aurrerapen handiak egin arren eta munduko potentzia bat izan arren), Kongoko Errepublika Demokratikoan, Etiopian, Indian, Indonesian eta Pakistanen. Ikus dezakegunez, Etiopia zorigaiztoko geografia horren parte da, bera baita munduko bigarren herrialde pobreena, Txadeko Errepublikaren ostean. Guretako askok, joan den urteetan jakin izan dugu hango berri hedabideen bitartez iritsi zaizkigun lehorre, gosete eta gerrateengatik. Albistegietan egon zen 1974ko gosetea, Haile Selassie enperadorearen eroraldia eragin baitzuen, baina, batez ere, 1984ko gosete izugarria, milioika etiopiar hil baitzituen. Eta berriro ere albistegietan egon zen 2003koa.

Azterketa guztiek esaten digute, bestalde, pobrezia gorrian egunean euro bat baino gutxiagorekin bizi diren mila milioi lagun % 70 landa inguruetan bizi direla. Wukro era horretako herria da, bere hogeitaka mila biztanleetatik % 65 pobretasun larriaren mailaren

azpitik bizi baita, egunero euro bat eskuratzeko arazoekin, eta landa ingurunekoa baita.

Zifra horien atzean gizon-emakumeen aurpegiak daude, seme-alabei elikadura, heziketa eta bizitza hobea ematen saiatzen direnak, edo etorkizun bat nahi duten gazteak. Pobretasuna eta gosea ez dira datu sozial hutsak, baizik errealitate zehatz eta eguneroko bat, pertsona konkretuen bizitzarekin lotuak.

Gosea benetan egiturazko arazo bat da, desnutrizioa pairatzen duten pertsonen kopurua etengabe goratu baita, ekonomia garatu eta elikagaien salneurria apalagoa izan den garaietan ere. Beraz, hazkunde ekonomikoa, funtsezkoa izanik ere, bera bakarra ez da aski gosea ezabatzeko denbora tarte zentzuzko batean; nahitaezkoak dira erabakiak eta neurri politikoak, herri garatuen aldetik konpromiso alboraezinak lotzeko. Larrialdi moral, sozial eta politiko bat da.

Gaur egungo egoeran, zalantza ekonomiko-finantzarioak ezin dira aitzakia izan herrialde pobretuen garapenaren aldeko ahalegina eta baliabideak murrizteko, edo Milurtekoaren Helburuak alde batera uzteko, krisia gainditu bitartean. Ez dago arrazoi aski gaur egungo munduan den gosearen aurkako borroka mantsotzeko. Arazoa ez da ondasun eskasia. Aspaldidanik dakigu badela munduan behar adina ondasun gizaki guzti-guztiei elikadura eta oinarrizko baliabideak emateko. Bestalde, pobretasuna gainditzeko eragozpen nagusiak ez dira, ezta ere, teknikoak, soberan baititugu baliabide zientifikoak eta teknikoak. Benetako arazoa da erabakimen argi bat izatea herrialde aberatsen eta pobreen arteko eten gero eta handiagoa gainditzeko, eta ondasunen banaketa bidegabea gainditzeko. Ez dago, beraz, proiektu gizatiarragorik eta eskergarriagorik, 2015erako ezarritako helburuak lortzea baino, eta munduan justizia sozial handiagoa sustatzea baino.

## **2.- Zibilizazio ereduak krisian dago**

Zergatik dira han larriak eta sakonak gure mundu honetako desberdintasunak?

Bi teoria sortu dira hori dena azaltzen saiatzeko. Lehenak, pobrezia eta aberastasuna fenomeno guztiz bananduztat jotzen ditu. Aldiz, bigarrenak, dependentziaren teoriak, alegia, aberastasuna eta pobrezia elkarri lotutako fenomenotzat jotzen ditu. Hau da, aberatsak daude, pobreak daudelako, eta pobreak daude, aberatsak daudelako; Hirugarren Munduan ez dago pobreziarik bertako populazio behartuaren arduragatik, ez eta baldintza naturalek edo egoera orokorrak eragindako zorigaitz nahitaezko batengatik ere. Pobretasuna azaltzeko bigarren bide horrek herrialde aberatsen eta pobreen arteko harremanetan jartzen du begirada. Ikuspegi horren arabera, gure garabidea bi baldintzaren gainean eraikitzen da: lehenik, pertsona nahiz herrialde aberatsenen bizi maila ez dago negoziatzerik; bigarrenik, gaur ez bada bihar, bizi maila horrek mundu guztira orokortzen amaituko du. Alabaina, badirudi bi baldintza horiek ez direla bateragarri. Horrela nabarmentzen ari da mundializazioaren edo globalizazioaren aro historiko honetan.

Globalizazioa guztiz baldintzatzen dute potentzia politiko, finantzario eta militar nagusien interes ekonomiko hegemonikoek. Interes horien oso agerian gelditzen dira herrialde aberatsek erabiltzen dituzten mekanismo batzuetan, hala nola: maileguak eta mendekotasuna ekonomiko eta finantzarioa (kanpo zorraren metatzea jasanezina da); merkataritza trukeen desberdintasun maila (lehen osagaien salneurriak herrialde aberatsek ezartzen dituzte, beherako joera dute produktu manufakturatuen aldean, eta produktu natural asko produktu sintetikoek ordeztzen dituzte); dibertsifikazio urriko ekonomiak, lehia desleiala eta norberaren produktuen aldeko hesi

komertzialak edo merkatu kuotak ezartzen dira (hori da garabidean diren herrialdeen garapenaren aurkako eragozpen handiena); garapenerako laguntza ofizialak ematen dira trukean abantaila neurrigabeak ezarrita; enpresa transnazionalak ezartzen dituzten inbertsio baldintzak (Hegoaldeko herriek ateak ireki behar izaten dizkiete atzerriko inbertsioei, gabezia dituzten hiru baliabide ekar ditzaten: kapitala, teknologia eta gidaritza); arma salmenta (zorpetzearen eragingarri handiena); kultur mendekotasuna (mendebaldeko bizi estiloaren ideala ezartzen zaie).

Horri gaineratu behar zaio afrikar politikari, ekonomialari edo militar batzuen kolaborazioa. **Angel Olaranek** honela azaltzen du bere gutun batean: *«Badugu arazo bat, afrikar lider asko ez baitira zintzoak. 1960ko eta 70eko urteetan Europako potentzietatik independentzia lortu zuen Afrikak; orain, uste dut bere liderrengandik lortu behar duela independentzia. Ustelkeria handia dago, nepotismo handia. Liderrak ukiezinak dira... Agian kolorea aldatu da, baina ez pentsaera: boterea erabiltzea norberak onura ateratzeko».*

Sistema bat ez da inon etikoa, ez eta gizatiarra, irabazi pribatuak lehenesten baditu pobreen bizitza eskubidearen gainetik, espekulazioa hobesten badu ekoizpenaren eta ekonomia benetakoaren aurretik, krediturako bidea errazten badu aurrezkiaren babesik gabe.

Mundura ekarri behar genukeen zibilizazio proiektu berriak nahitaezkoa ditu, zalantza gabe, elkartasun handiagoko zentzu etiko bat, garapen iraunkorraren kontzeptua gizarteratzea, elkartasunezko ekonomia eta bidezko merkataritzaren sareak baliatzea, eta gizarte zibil antolatuaren giza kapitala indartzea.

Itxura guztien arabera, klimaren aldaketarekin bat, gure sistema sozio-ekonomikoa aldatzen joan behar dugu, jendea goseak hiltzen uzten baitu, populazio asko pobretzera kondenatu, gerra hilgarriak

sortu eta planeta osoa arriskuan jartzen baitu. **Ulrich Beck**-ek arriskuaren gizarte izendatu zuen hura, benetako arrisku bihurtu da gaur egun, gure mendebaldeko gizartea gainditu eta gizateria ia osorik harrapatzen baitu.

### **3.- Elkartasunezko zibilizazio eta kultura baten alde**

Pentsalari askok azpimarratu izan dute egungo globalizazioaren arima edo gizatasun falta, errealitate sozialaren ikuspegi erredukzionista, eta bere sentiberatasun eskasa aberastasuna globalizatzeko, edo balio etikoak eta herrien arteko elkartasuna hobetzeko.

Gure bizitza komunitarioan eta indibidualean garapen eredu horrek duen eragina nahi nuke nabarmendu; izan ere, arazo hori azpimarratu beharra dago, erantzun bat behar baitugu argitzeko zergatik bizi garen goseari bizkar emanda: Kontsumo gizartearen garapenari emango diogu lehentasuna, gizakien talde txiki hautatu baten mesedetan, gizaki askok eta askok behar adinako urik eta jakirik ez duten bitartean, osasun zerbitzu eskuragarri eta eraginkorrik ez duten bitartean, etxe duinik ez duten bitartean, garraiobide eta saneamendurik ez duten bitartean, oinarrizko heziketa eta trebakuntza profesionalik ez duten bitartean?

Mendebaldeko garapen ekonomikoaren ereduak eramaten gaitu, gero eta gehiago, merkatuaren eta kontsumoaren logika gailentzera, post-modernitatearen balioei gero eta leku zabalagoa ematera. Merkatua eta kontsumoa ari dira bihurtzen bizitza sozialaren eta kulturalaren antolataile.

Ikus-entzunezko erakusleihoak oso ongi azaltzen digu errealitate hori. Eredu horren adibide soil bat aipatzearen, etengabeko ikuskizun bat eskaintzen zaigu, luxuzko erosketak eta etxebizitza aberatsak azalduz.

Gure artean izan dugu Foru Aldundian, aspaldi ez dela, Zygmunt Bauman soziologoa. Baumanek xehetasun handiz azaldu zizkigun

«gizarte likidoaren» ahultasunak; konpromiso erkidegoen lekuan, erkidego estetikoak gailentzen baitira.

Gizarte indibidualista batera goaz bizkor, sare komunitarioa gero eta ahulagoa duena, gero eta kapital sozial apalagoa duena. Sekularizazio, pluralizazio eta indibidualizazio prozesua indartzen ari da. Subjektibotasuna gailentzen zaio erkidegoari, gizarte harremanen esparruan. Erkidegoak garrantzia galtzen du norbanakoaren aurrean.

Pertsonaren askatasuna funtsezko balioa da; baina indibidualismo arduragabe batek, erkidegoaren balioa itotzen duen neurrian, gizakiaren askatasuna trenkatu egiten du.

Garai zakar batean bizi garenez, ulergarria da askok ezinegonaz eta zapuzkeriaz ikustea egungo egoera, bizitzaren alor askotan. Halabeharrezkotasunaren logika gailentzen da. Errealitatearen loditasunak tarte gutxi uzten die utopiari eta hautabideei. «Historiaren amaiera» (**Francis Fukuyama**) berriro ere ageri da gure artera. Hala eta guztiz ere, bada zerbait gure barnean aditzera ematen diguna errealitatea ez dela soilik daukaguna. 2010eko gizon-emakumeok ere bizi ditugu zerbait berriago eta hobearen ametsa, irrika eta itxaropena. Zerbait hobea, eraiki behar dena, hemen eta han, gaur eta bihar, nik et guk, astiro, baina norabide zuzena galdu gabe.

Nondik has gaitezke bide berri hori urratzen? Ahots ezagun askok azpimarratu izan dute gaur egungo krisi ekonomiko eta ekologikoa beste krisi zabalago baten adierazle eta emaitza dela; gure balioen eta kulturaren krisiarena.

Ez gaitezke ezaxolati izan besteren miseriaren eta oinazearen aurrean. Aurreiritziak, ideologiak edo moralismoak ez daitezke aitzakia izan, besteren zorigaitzaren aurrean aldagaitz agertzeko.

Proiektu elkartu batekiko konpromisoa, gizarte elkartasuna, eta gure

garapen ekonomiko nahiz politikoa sakonetik auzitan jartzeko kontzientzia kritikoa, horra hiru zutarri, ez-gizatasun honi irauli bat ematen hasteko.

Konpromiso zibikoa eta gizartea indartzea, ikuspegi sozial eta etiko batetik ikusita, lehen mailako helburua da; baina, aldi berean, nazioarteko ordenamenduaren kultura demokratikoa ere aztertu behar dugu, bai ekonomian, bai politikan. Agenda politikoan sartu beharra daukagu globalizazioaren eskastasun demokratikoa. Jabetzen naiz zein urrun gauden era horretako erabakiak emateko gaitasuna duten egituretatik. Tira, egin dezagun gure mailan: gure etxeetan, auzoetan, herrietan...

Gipuzkoako gizarteak era asko eskaintzen ditu —harro egon gaitezke horretaz— elkartasuna bideratzeko familiatik, lan mundutik edo norberaren eguneroko zereginetatik; hor dira talde edo mugimendu sozialak, gizatalde behartsuenen alde, Hirugarren Munduarekiko lankidetzan, natura edo ekologia babesten, berdintasuna sustatzen, kulturarekiko edo euskararekiko konpromisoa lantzen, bakearen aldeko lanetan; hor dago, baita ere, politikaren mundua, elkartasunaren kultura berria zabaltzen laguntzeko.

Zalantza gabe, pertsona edo erkidego baten indarra neurtzen da ahulenen aldeko bateratasun, elkartasun, arreta eta gogoaren arabera. «Eman» baino gehiago, «partekatu» egin behar dugu, eta, ahal bada, «bizikide izan», mundu elkartuago eta bateratuago bat izan dezagun.

Funtsean, pauso edo *norabide aldaketa* bat eman beharra daukagu, eta, ondorioz, alde batetik, «auto-murrizpen adimentsua» egin, eta, bestetik, giza balio esanguratsuak sustatu. Auto-murrizpen horrek irtenbide bat bilatu behar du mugarik gabeko hazkundeaz eta kontsumoaz, naturarekiko harreman ez hain oldarkorrek berreskuratzeaz, gizartearen desberdintasunak apalagotzeaz, eta

gizaki ahulenen ongizateaz.

Horrekin batera, irtenbidea da erkidegotasun balioak sustatzea, herritarren konpromisoa eta elkartasunezko harremanak indartzea (nire zoriontasuna ez dago soilik nire esku; erabakigarriak dira harreman pertsonalen mundua, elkartzea eta komunikatzea). Erabakimenez jo beharra dago elkarrizketara, gatazkak eztabaidaren bitartez era baketsuan konpontzera; gatazkak kontrolatu eta konpontzeko nazioarteko bitartekari eraginkorrak sortu behar dira.

Eta, jakina, Angel Olanen ereduari jarraituz, norberak konpromisoak hartzea, arretaz, denboraz eta baliabide ekonomiko, komunitatearen proiektu zehatzetan. Elkartasuna benetan hezurramitu beharra dago.

Izateko, gutxieneko baliabide batzuk eduki behar dira. Hirugarren Munduko herrien zorigaiztoa da ez dutela gutxieneko hori. Horregatik, gure egunotan, errealismoz betetako utopia bat izan daiteke *gizaki guztiei bizitzarako gutxieneko baliabide batzuk ziurtatzea*. Alferrik ari gara berdintasun ezinezko bat lortu nahirik gora; alderantziz, bizirauteko eta garatzeko gutxieneko batzuk ziurtatu behar ditugu behera, bost gizakitatik laurentzat.

Guztiontzako gutxienekoen utopia honek elkartasunezko konpromiso eraginkorra indartzea eskatzen digu: *«erabakimen tinko eta jarraitu bat, guzti-guztion ongia bilatzen tematzea»*.

Hausnarketa ez dago bereizterik praktika konkretuetatik, ez eta bere emaitzetatik. Praktikak dimentsio politiko bat behar du, zentzu jator eta positiboenean: politika, bultzada etikoari erabide sozial bat emateko irtenbide praktikotzat ulertua.

Elkartasunezko kultura berri horrek ikuspegi global bat behar du, baina abiatzen da eta gauzatzen da «leku bakoitzean». Ez da, beraz,

*elkartasunaren kultura* itxuragabe eta izengabe bat, baizik herri bakoitzaren balio hoberenei lotua; elkartasuna nortasun konplexu, dinamiko eta ireki batez garatzen da, munduko beste herri batzuen zoriarekin bat egitera eramaten gaituena.

Ongi dakigu aldakuntza sozio-kulturalak astiro, gaitz eta zail gertatzen direla. Hala ere, gauza ederra da gizaki bakoitzaren bihotzean eta herri guztien ariman gorderik den elkartasunaren altxorra argitara ateratzen saiatzea.

Mila esker.